

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin daukagun tratua zuzenena eta onenena izaten saiatuko gara, gure helburu garrantzitsuenetako bat bezeroak gurekin hitz egiterakoan eroso sentitzea delako. Baina baita ere, bezeroen artean komunitate handi bat sortzea nahi dugu.

Seguruena da gure bezeroek zalantzak izatea, berrikuntzak ezartzeko ideiak ematea edo zerbait erreklamatu nahi izatea txiparekin zerbait gertatuz gero(hori ez gertatzea espero dugu). Horretarako, gure web gunean gurekin komunikatu ahal izateko gure gmail-a, instagram-a eta telefonoa eskuragarri izango dute. Gutxi gorabehera hiru eguneko epea ezarri dugu bezeroen mezuei erantzuteko.

Horrekin batera, web gunean zalantzak argitzeko, gehien egin diren galderak erantzuteko eta iritzia emateko atal bat egongo da, foru bat bezala. Bertan bezeroek produktuen argazkiak igo dezakete. Beraz, online-en erosteko garaian sortu daitezken galderak, zalantzak edo ea seguru den bertan erostea a la ez, web-aren atal horretan egongo dira azalduak. Aipatzekoa da balorazioa izarretan ere adierazi ahal daitekela. Instagram-en inkestak egingo ditugu APP-an zer gustatzen zaien jakiteko, etab. Bertan, #SolarChipVIP hashtag-a erabili beharko dute gure instagrameko kontuan agertzeko. Baita ere, udan edo kanpainak egiterako orduan(gabonetan, adibidez) hashtag bereziak erabiliko dira: #SolarChipSummer edo #MerrySolarChipmax. Eta argazkirik hoberenak gure historia nabarmenetan igoko ditugu. Hilean gutxi gorabehera, zozketa bat egingo dugu geure bezero horiei produktua dohainik lortzeko.

Arazo bat badaukate gure produktua akastun batekin atera delako, ez dute problemarik izango itzultzeko. Gmail-ez mezu bat bidali egin beharko dute edo produktua eskuragarria den denda fisikoetara joan behar dira produktua itzultzeko. Gmail-en bidez egiterakoan produktua enpresara bidali behar denez, bidalketaren prezioa guk ordainduko dugu. Dirua bueltatu daiteke edo beste txip berri bat bidaliko diogu.

